



### 3 BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

Alarma Egoeraren 3. eguna. 2020ko martxoaren 18a

Aurkezpena

Asteartea hilak 17ko kudeaketa / Ekintzak

#### ERAKUNDEEI EGINDAKO ESKAERAK ETA BEHARRAK

Dagoeneko baditugu Udalak gaitutako baliabideen datuak. *La Sirena* aterpetxea Ondarretan: atzo, asteartean, 25 lagun sartu ziren eta gaur beste 15-18 sartuko dira. Bihar, osteguna, Atano pilotalekua egokituko dute, Anoetan, beste 100 lagunentzako. Udalak Gaueko itxi zuen, ezin baitziren gutxieneko distantziak gorde, erabiltzaileak Abegi Etxea eta La Sirenara eramanez. Hori horrela izanik, egingarria al da Atano pilotalekuan lortzea?

Caritasek *Hotzaldi* eta *Aterpe* mantentzen ditu, lehenengoan 35 lagunek igarotzen dute gaua eta bigarrenean 21ek. Hauek ere beharrezko baldintzak betetzen ez dituztenez, alternatibak bilatzeko esan zaie, baina Aldundiak ez du ez erantzukizunik hartzen ezta baliabiderik ematen ere.

Bitartean, pertsona horiek guztiak (atzo *La Sirenan* sartu ziren 20 pertsonak izan ezik), goizean egoitza utzi behar duten Hotzaldi eta Aterpeko 56 pertsona barne, egunean zehar non egon eduki gabe jarraitzen dute, eragozpen klimatiko eta presio poliziala jasanez. Gainera kiroldegiak erabiltzeko aukera baztertu egin da. Zein da aldea kiroldegi baten eta Atano pilotalekuaren artean masifikatu gabeko lekua edukitze aldera? Kiroldegi batzuk egunez irekitzeak, pertsona talde txikiek erabiltzea ahalbidetuko luke.

Udalak zailtasun administratiboak planteatzen ditu, dagozkion kontrolak pasatu behar dituzten neurriak berehala hartzeko, nahiz eta jada bestelako neurriak hartzen diren, eta zaila dela langileak azkarrago kontratatzea, eta abar. Kontua da hau bezain ohiz kanpoko den egoera batean, milioika pertsona konfinatuta daudela, mugak ixten direla, armada mobilizatzen dela... ez al da eskagarria are azkarrago erantzutea? Ez al da hondamendi humanitarioetan lortzen den zerbait, non hotelak edota beharrezko diren baliabideak atontzen diren?

Gaitzen ari diren baliabideak beharrezkoak dira eta egoerak eskatzen duenaren parte dira. Baina uste dugu justiziazkoa dela behar guztiei eta beharrezkoa den premiarekin erantzutea.

**Gosea.** Hau da erabat oinarrizkoa den eta estaltzen ari ez den beste gabezieta bat. Udalak, gutxienez, janari-poltsa entregatzeko zerbitzu bat prestatu beharko luke, gainerako herritarrak supermerkatuara janaria erostera joan daitezkeen bezala, pertsona hauek poltsa horiek jasotzeko gaitutako gunetara joan ahal izan daitezken. Horrelakorik ez da egiten ari, eta, gure kasuan, gosea pasatzen ari diren pertsonen egunero (orain arte astero egiten genuena) janaria ematea geure gain hartzen ari gara. Baldintza zailtan egiten dugu gainera, ez bakarrik horretarako erabiltzen dugun lokalagatik (SOS Arrazakeriaren bulegoa), baizik eta argi eta garbi arrazistak diren jarrerak dituzten auzokide batzuen jazarpenagatik, poliziak dei eginez bonbardatzen baitituzte, arreta hori jasotzen ari direnak sakabanatzera joan daitezken. Zailtasun gehigarri bat dira, halaber, bai elikagaiak biltzeko, bai banatzeko, joan-etorrietan dauden kontrolak. Oraingoz konpontzen gara, baina banaketa galaraz dezakete.



### 3 BULETINA

#### Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

**Hotza.** Ematen dizkiguten mantak banatzen jarraitzen dugu, eta bereziki Itsas Salbamendu Humanitarioaren elkartasunari esker estutasunik gabe egin dezakegu.

**Kontrolak.** Egoera larriagotzen ari da, auzokide batzuen jazarpen gerrillari xenofoboak direla eta. Auzokide hauek, elkartuta, janaria lortzeko edo mugikorrek kargatzeko tokiaren bila dabiltzan gazteak salatzen dituzte, udaltzain eta ertzain patruilak behin eta berriz mobilizatuz, SOS Arrazakeriaren bulegoraino etor daitezten. Patruilek gazteak sakabanatzen dituzte, mugikorrek kargatzeko gaitutako korrante-hartunea kentzera behartzen gaituzte eta gure jarduera bertan behera utzi eta etxera joateko presionatzen gaituzte eta ez gaude prest hori egiteko, gure "lana" ezinbestekoa baita oraindik ere, eta, alde horretatik, Alarma Egoerak baimendutako jardueren barruan sartzen baita. Argi dago, udal korporazioari helarazi badiogu ere, gaur ere poliziaren presioari aurre egin beharko diogula eta beste behin honen ondorioak jasan. Jasangaitza dena da *Hotzalditik*, esate baterako (egunez ixten duelako), ateratzen diren pertsonak, inora joaterik ez dutenek, poliziaren, ertzainen eta udaltzainen jazarpena eta isunen mehatxua jasan behar izatea. Hau gelditu beharra dago! Eta oraintxe gelditu behar da!

**Komunikazioa.** Arazo hauei zabalkundea emateko ahalegin guztiak egiten ari gara, isiltasunean lurperatuta gera ez dadin. Atzo hainbat hedabide artatu genituen: Gara/naiz <https://www.naiz.eus/eu/actualidad/noticia/20200316/kale-egoeran-daudenekin-ahaztu-egin-dira-koronabirusaren-hedapena-moteltzeko-neurriak>, Hamaika Telebista, Irutxulo, hala nola gure eskaera eta planteamenduak jasotzen ari diren hedabideak (Diario Vasco, Noticias Gipuzkoa eta hainbat irrati)

2. buletina hedabideetan eta sarean zabaldu da.

Gainontzeko entitateekin eta baita SMUSarekin ere koordinazio eta informazio elkartrukerako harreman estua mantentzen jarraitzen dugu.

#### **BORONDATEZKO BALIABIDEEN ESKEA ETA ELKARTASUN ERANTZUNAK**

Elkartasunezko ekarpen ekonomikoari dagokionez hiru eguneko epean 92 pertsonak 3.932€-ko ekarpena egin dute.

*Zaporeak* erakundeak gordeta duen janaria erabiltzeko eskaintza egin digu. Ostalaritza laguntzari dagokionez, *Gandarias*-ek ematen digun prestatutako janaria, *Va Bene*-k emandako bolleria eta *Pandorak* eskainitako janaria azpimarratu nahi dugu.

Mugikorrek eta koltxoiak behar ditugu, baita sukalde bat ere.

*Akab-ek* (Askatasun Kolektiboetarako Abokatuak) zuzenbide-laguntza eskaintzen du, baliagarria izan daitekeena poliziarekin arazorik izanez gero: 943 383629

*Hegaz/Kolore Guztiak-ek* laguntza psikologikoa eskaintzen du telefonoz edo internet bidez: 654 63 33 65

Eskerrak eman nahi dizkiogu arnasa hartzeko ezinbestekoa den eta hazten jarraitzen duen herritarren inplikazioari.

#### **Donostiako Hiritarron Harrera Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia**

**Kontaktua:** redacogidaciudadana@gmail.com 672 95 20 66 / 675 71 53 15

**Ekarpenak:** cc ES44 2095 5013 70 9119577666

**ZABAL EZAZU, helarazi zure ekarpenak, iradokizunak, salaketak.**